

BOOKTEGI

DEABRUAREN  
ELIZA

MACHADO DE  
ASSIS



ITZULPENA: UNAI BEGIRISTAIN



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

MACHADO DE ASSIS

# Deabruaren eliza

itzulpena:

Unai Begiristain

## lehenengo kapitulua – Ideia zoragarri bat

Beneditarren eskuizkribu zahar batek dioenez, Deabruari eliza bat sortzea bururatu zitzaion egun batean. Deabrua, irabazi etengabeak eta handiak eduki arren, beheraturik sentitzen zen mende luzeetan izandako egiteko hutsalarekin, ez antolaketa, ez arau, ez kanon, ez erritual eta ez ezer. Nolabait esatearren, hondar jainkotiarretatik bizi zen, giza deskuidu eta oparrietatik. Ez ezer finkorik, ez ezer erregularrik. Zergatik ez zuen izango, bada, bere eliza? Deabruaren eliza zen bitarteko eraginkorra gainerako erlijioei hortzak erakusteko, behingoagatik suntsitzeko.

—Sortu behar dut, bada, eliza bat —bota zuen—. Eskrituraz eskritura, brebiarioz brebiario. Neronen meza izango dut, ardoa eta ogia erruz; neure sermoiak, buldak, bederatziurrenak eta gainerako elizkizunak. Espirituen nukleo unibertsala izango da nire kredoa, eta nire eliza, Abrahamen denda. Ondoren, gainerako erlijioak elkarrekin borrokan eta zatiturik direla, nirea izango da eliza bakarra. Ez ditut izango begien bistan ez Mahoma, ez Luther. Hamaika modu dira baiesteko; bakarra, ordea, guztia ukatzeko.

Hori esatean, Deabruak burua astindu eta besoak zabaldu zituen, keinu arranditsu eta kementsuz. Ondoren, gogoratu zen Jaungoikoarengana joan behar zuela ideia horren berri ematera, eta desafio egitera. Altxatu zituen begiak, gorrotoak pizturik eta mendekuz gorriturik, eta bere artean: —Tira, bada garaia—. Eta bizkor batean, hegalak astindurik, itzaletatik irten eta urdin infinitura abiatu zen zalapartaka, infernuko probintzia guztiak airean jarririk.

## bigarren kapitulua - Jaunaren eta Deabruaren artekoa

Deabrua zerura iritsi zenean, Jaungoikoa agure bati harrera egiten ari zen. Serafinak, iritsi berria girlandaz apaintzen ari zirela, berehalaxe geratu ziren, eta Deabrua sarreran baratu zen, Jaungoikoari begira.

—Zer nahi duzu niregandik? —galdegin zion hark.

—Ez nator zure zerbitzari Faustoren bila —erantzun zion Deabruak barrez—, ezpada mende luzeetan izandako Fausto guztien bila.

—Esplika zaituz!

—Jauna, samurra da azalpena, baina utzi iezadazu azaltzen: hasteko eta behin, jaso agure zintzo hori; ipini tokirik onenean, eta agindu laute eta zitara afinatuei ongietorria emateko korurik jainkotiarrenekin...

—Badakizu zer egin zuen? —galdegin zuen Jaunak, begi eztiz.

—Ez, baina zuregana etorriko den azkenetarikoa izan bide da. Hemendik gutxira, etxe huts baten moduan geratuko da zerua, prezio garestia du eta. Ostatu merke bat eraiki behar dut; labur esanda, eliza bat sortu behar dut. Asperturik nago nire anabasarekin, nire erreinu ezusteko eta arrotzarekin. Bada garaia azken garaipena eskuratzeko, osorik eta erabat. Eta, hortaz, horixe esatera etorri natzaizu, leialtasunez, ez diezadazun leporatu inkariorik. Ederra ideia, ez al da hala?

—Esatera etorri zara, ez legitimatzera —ohartarazi zion Jaunak.

—Zuzen zaude —erantzun zion Deabruak—, baina amodio propioak gogoko du maisuen txaloa. Jakina, kasu honetan garaituriko maisu baten txaloa litzateke, eta halako eskakizun bat... Jauna, lurrera jaitzi behar dut, oinarria ipintzera.

—Zoaz.

—Nahi duzu bueltan etortzea, obra-amaieraren berri ematera?

—Ez dago beharrik; nahikoa da esatea zergatik pentsatu duzun orain eliza bat sortzea, horren aspalditik bazaude nekatuta antolaketa-faltarekin.

—Deabruak irribarre egin zuen, isekaz eta garaipenez. Ideia krudelen bat zuen espirituan, erreparo garratzen bat oroitzapenen zakutoan; betikotasun-istant labur horretan, Jauna bera baino gailenago zela pentsarazten zion zerbaite.

Baina barreari eutsi, eta hauxe bota zuen:

—Oraintxe bukatu dut ohar bat, duela mende batzuk hasia; alegia, erreginekin alderatzeko modukoak direla bertuteak, zeruko alabak, eta kotoizko parpailez erremataturik daudela haien belusezko soingainekoak. Orain, parpaila horietatik tira egiteko asmoa dut, eta guztiak nire elizara ekartzeko; haien atzetik etorriko dira zeta puruzkoak...

—Erretoriko zaharra! —esan zuen ahopean Jaunak.

—Begira ondo. Munduko tenpluetan zure oinetan belaueniko dituzun gorputz askok bitxiak ekartzen dituzte areto eta kaletik, aurpegiak hauts berarekin koloreztaturik, zapiak usain berberekin lurrindurik, begi-niniak jakin-minez eta debozioz dir-dir, liburu santuaren eta bekatuaren bibotearen artean. Ikus zer-nolako irrikaz —edo axolagabekeriaz, behintzat— kaleratzen dituen jaun horrek liberalki zabalduriko onurak, izan jantziak edo oinetakoak, edo txanponak, edo bizitzeko beharrezkoak diren gai horietako zeinahi... Baina ez nuke nahi pentsatzerik kontu txikietan geratzen naizela; ez naiz ari, konparazio batera, anaiarteko epaile honek prozesioetan zure maitasuna eta mandatu bat bularrean errukitsu kargatzeko atseginez... Kontu gailenagoez jardungo naiz...

Orduan, asperduraren asperduraz eta loguraren loguraz, serafinek hegala astindu zituzten. Migelek eta Gabrielekek erreguz begiratu zioten Jaunari. Jainkoak eten egin zuen Deabrua.

—Zakarra zara, eta horixe da zure espezieko espiritu bati gerta dakioken okerrena — erantzun zion Jaunak—. Diozun guztia esana dute mundu zabaleko moralistek, behin baino gehiagotan esana ere. Iturri agortua da; ez baduzu indarririk edo originaltasunik agorturikoa berritzeko, hobe duzu isildu eta erretiratu. Hara, aurpegian ezagun dute nire legio guztiek zer-nolako asperdura eragiten diezun. Agure horrek berak ere gogaiturik dirudi. Eta badakizu zer egin duen?

—Esan dizut ezetz.

—Bizimodu zintzo baten ondoren, heriotza sublimea izan zuen. Itsas zabalean hondoraturik, ohol baten gainean hartu behar zuen babes. Baina ezkongai-bikote bat ikusi zuen, bizitzaren loraldian heriotzarekin borrokan. Salbatzeko ohola haiei eman, eta betikotasunean murgildu zen. Lekukorik ez: ura eta zerua gainetik. Non topatzen duzu hor kotoizko parpaila?

—Jauna, dakizun moduan, neu naiz ukatzen duen espiritua.

—Ukatu egiten duzu heriotza hori?

—Guztia ukatzen dut. Misanthropiak karitate itxura har dezake; bizitza besteri uztea, misantropo baten aburuz, gorrotatzea da egiaz...

—Erretorikoa eta sotila! —egin zuen deiadar Jaunak—. Zoaz, bada, eta sortu zeure eliza; egin dei bertute guztiei, jaso parpaila guztiak, deitu gizon oro... Zoaz, bada, zoaz!

Deabrua saiatu zen beste zerbait esaten. Alferrik. Jaunak isiltasuna ezarri zion. Serafinek, seinale jainkotiar batean, beren abestien harmoniaz bete zuten zerua.

Deabruak bat-batean sentitu zuen airean zebilela; hegala tolestu, eta, tximistaren pare, lurrera jo zuen.

## hirugarren kapitulua – Berri ona gizakiei

Lurrera iritsi ostean, Deabruak ez zuen galdu minuturik ere. Jantzi zalapartaka beneditarren kapusaia, fama oneko abitu gisa, eta dotrina berri eta aparteko bat zabaltzeari ekin zion, mendearen barrenetan oihartzun egiten zuen ahotsarekin. Lurreko plazer guztiak agintzen zizkien dizipulu eta fededun guztiei, loria guztiak, atsegirik minenak. Deabrua zela aitortzen zuen, baina gizakiek berari buruz zuten iritzia zuzentzeko eta santa zaharrek hari buruz kontatzen zituzten istorioak gezurtatzeko.

—Bai, Deabrua nauzue —errepikatzen zuen—, baina ez gau sufretsuetakoa, lo eragiten duten ipuinetakoa, haurren izua, baizik eta egiazko deabru bakarra, izadiaren jeinua, izen hori gizakien bihotzetatik erretiratzeko hartu zuena. Hementxe nauzue, adeitsu eta lerdan. Zuen egiazko aita. Ea bada: hartu nire itzal ona galtzeko sorturiko izen hori, bilakatu trofeo eta labaru, eta nik dena emango dizuet, den-den-den-den-dena...

Halaxe hitz egiten zuen hasieran, karra pizteko, axolagabeak alertatzeko, eta, finean, jendetza bere oinetan biltzeko. Eta inguratu egin zen jendetza. Eta, iritsi bezain pronto, Deabruak dotrina definitu zuen. Ukapen-espíritu batetik irten zitekeen dotrina zen. Hori, mamiari zegokionez. Formaz, ordea, bestelakorik zen; batzuetan sotila, beste batzuetan, aldiz, ziniko eta lotsagabea.

Aldarrikatzen zuen onarturikoez bestelako bertuteak behar zirela, naturalak eta legitimoak. Indarrean jarri ziren berriz harrokeria, haragikeria eta alferkeria. Baita lukurreria ere, esanez ekonomiaren ama baino ez zela; alde bakarra zen, ordea, ama mardula zela, eta alaba, berriz, txankila. Amorruren defentsarik onena Homeroren existentzia zen. Akilesen karririk gabe, ez zen izango Iliadarik: «Ialki ezazu, Urtzemel, Akile Pelesemearen erresumiña...». Beste horrenbeste sabelkeriari zegokionez: harekek sortu zituela Rabelaisen orririk onenak, baita Hisoperen bertso bikain askoak ere. Hain zen gailena bertute hura, ezen inork ez baititu gogoan Lukuloren batailak, ezpada haren afariak. Sabelkeriak egin zuen, hain justu, hilezkor. Baina, arrazoi literarioak edo historikoak albo batera utzirik ere, bertute haren balio intrintsekoa erakusteko, ez al da askoz hobe otordu oparoak sentitzea aho-sabeletan, mokadu arloak edo baraualdiko listua baino? Nork ukatu halakorik?

Deabruak, bestalde, Jaunaren mahastia ordezteko hitza eman zuen; esapide metaforikotzat zuen hura, eta Deabruaren mahastia nahi zuen haren tokian; huraxe zen lokuzio zuzen eta egiazkoa, inoiz ez baitzien kale egingo bereei, munduko mahats ederrenen fruituarekin. Inbidiari dagokionez, hotz-hotzean zabaldu zuen hura zela bertute nagusia, hamaikatxo propietateren jatorria; bertute preziatua, beste guztiak ordezten zituena, baita talentua bera ere.

Jendetza atzetik korrika zuen, gartsu. Deabruak, elokuentzia-keinu handiz, gauzen ordena berria irakasten zien, haien nozioak aldatuz, zitalak maitaraziz eta finak gorrotaraziz.

Bitxietan bitxiena, iruzurrari ematen zion definizioa.

Gizakiaren ezkerreko beso deitzen zion; eskuinekoa, berriz, indarra zen. Eta zera esaten zuen amaitzeko: —Asko eta asko dira ezkertiak, hara hor—. Baina ez zuen eskatzen guztiak ezkertiak izatea; ez zen eskusibista. Ezkerti zein eskuin, guztiak onartzen zituen, ezer ez zirenak salbu. Halere, erosgarritasuna izan zen erakustaldirik zorrotz eta sakonena. Garai hartako kasulari batek aitortu zuenez, logika-monumentu bat zen. —Erosgarritasuna —bota zuen Deabruak— beste guztien gaineratik dagoen eskubide bat baliatzea da. Sal ditzakezu etxea, idia, zapatak, kapela, arrazoi juridiko eta legezko bat dela-eta zeureak diren gauzak, baina, nolana ere, zugandik kanpo daudenak; hori horrela izanda, nola ezingo dituzu saldu, bada, zure iritzia, botoa, hitza, fedea... Zureak baino ez diren gauzak, zure kontzientzia bera, hots, zu zerori? Horri ezetz esatea absurdua eta kontraesana da. Saltzen dute bada hamaika emakumek ilea? Ezin ote du gizon batek bere odolaren parte bat saldu, anemiak jota dagoen beste norbaiti emateko? Eta izango ote dute odolak eta ileak, parte fisiko izaki, izaerari ukatzen zaion pribilegiorik, jakinik gizakiaren zati moral direla? Printzipioa hala erakutsirik, Deabruak laster azaldu zituen denborarekin edo diruarekin loturiko abantailak. Ondoren, gizarte-aurreiritzia ikusirik, erakutsi zuen komenigarria izango zela zinez legitimoa den eskubide bat disimuluz egikaritzea, alegia, erosgarritasuna eta hipokresia aldi berean baliatzea; bestela esanda, bitan irabaztea.

Eta gora eta behera zebilen, guztia aztertzen, guztia zuzentzen. Garbi zegoen hortzak erakutsi zizkiola irainen barkamenari, baita gozotasun- eta begikotasun-esakuneei ere. Ez zuen formalki debekatu doako iraina, baizik eta ordainsariz gauzatzera adoretu zuen,

dirutan edo beste nolabait. Alabaina, irudimen-indarraren halabeharrezko zabalpen hutsa izanez gero, debekaturik egongo zen saria jasotzea, izerdia ordainaraztearen pareko litzatekeelakoan.

Errespetu-forma guztiak kondenatu zituen, nolabaiteko begirune sozial eta pertsonalaren elementu ote ziren edo; kanpoan geratzen zen, halere, interesa. Baina berehalaxe erretiratu zuen salbuespen hori ere, iruditzen baitzitzaion interesak, errespetua zurikeria huts bilakaturik, azken sentimendu hori aplikatzen zuela egiaz, eta ez interesa bera.

Eta eginahala errematatzeke, Deabruari iruditu zitzaion eten egin behar zuela giza elkartasun oro. Hain zuzen ere, hurkoa maitatzea enbarazu larria zen erakunde berrirako. Erakutsi zuen arau hori jantxakur eta negoziatzaile kaudimengabeen asmakeria hutsa zela. Hurkoari ez zitzaion zor axolagabekeria beste ezer; inoiz edo behin, gorrotoa edo mespretxua. Erakutsi ere erakutsi zuen okerra zela hurkoaren nozioa. Horretarako, Galiani izeneko apaiz napolitar batek esana ekartzen zuen, fina eta jantzia bera, zeinak hauxe idazten baitzion erregimen zaharreko markesetako bati: «Zer hurko eta zer hurko ondoko! Ez dago hurkorik!» Hipotesi bakarrean onartzen zuen hurkoa maitatzea: besteren emazteak maitatzean. Amodio mota horrek bai baitzuen bestelako berezitasunik, alegia, banakoak bere buruari dion maitasuna baino ez izatea. Eta dizipuluren batek pentsatuz gero halako azalpenak, metafisikaz, ulergaitz suerta zekizkiokeela jendeari, Deabruak alegia bat baliatzen zuen: —Ehun pertsonak banku bateko akzioak hartzen dituzte, eragiketa korronteetarako; baina akziodun bakoitzak bere dibidenduak baino ez ditu zaintzen. Horixe gertatzen da adulteriogileekin—. Jakintza-liburuan jaso zuen alegia hori.

## laugarren kapitulua - Parpailak eta parpailak

Deabruaren aurreikuspena egia bihurtu zen. Belusezko soingainekoa kotoizko parpailaz amaiturik zeukaten bertute guztiak, haietatik tira egin ostean, eliza berrira joaten ziren, soingainekoa sasitara botata. Haien atzetik etorri ziren gainerakoak, eta denborak bedeinkatu egin zuen erakundea. Sortua zen Eliza; zabaltzen ari zen dotrina. Ez zen mundu zabalean haren berri ez zuen eskualderik, dotrina hura itzultzen ez zuen hizkuntzarik, kutuna ez zuen arrazarik. Deabruak garaipen-oihuak bota zituen.

Alabaina, urteen joanarekin, Deabrua egun batez ohartu zen fideletako askok garai bateko bertuteak praktikatzen zituztela ezkutuan. Ez guztiak, ez eta osorik ere, baina bai batzuk: zatika, eta, diodan bezala, ezkutuan. Hainbat tripontzi arin samar jateko elkartzen ziren urtean hiruzpalautan, otordu katolikoan egunetan; lukur askok eta askok limosna ematen zuten gauez edo jendetzarik gabeko kaleetan; herri-altxorra xahutzen zuten hainbatek zenbateko xumeak bueltatzen zituzten; iruzurgileek bihotza eskuan zutela hitz egiten zuten aldian behin, baina plantak egiten jarraituz, gainerakoei sinestarazteko engainutan ari zirela.

Horren berri izatean, harri eta zur geratu zen Deabrua. Gaitzaren berri gehiago jakin nahian hasi, eta ikusi zuen erruz zabaldua zela. Ulegaitz zitzaizkion kasu batzuk, belaunaldi oso bat pozoitu zuen sortaldeko botikariarena, adibidez: baliatzen zituen droga berekin, biktimen seme-alabak artatzen zituen. Kairo aldean, berriz, gamelu-lapur azti bat topatu zuen, zeina meskitetara sartzen baitzen, aurpegia estalirik. Deabruak, meskita bateko atarian topatu ostean, aurpegiratu zion zer ote zen jokabide hori; besteak ezezkoa, dragoman baten gamelua harrapatzera joana zela. Baita lapurtu ere, Deabrua han zuela ikusirik, eta muezin bati eman zion opari. Muezinak, berriz, Alari otoitz egin zion, erregalia eman zionaren alde. Beneditarren eskuizkribuak aipatzen ditu beste hamaika aurkikuntza aparteko; horien artean, Deabrua erabat nahasirik utzi zuen hauxe. Kalabriar bat zen Deabruaren apostolurik onenetakoa: berrogeita hamar urteko gizona, dokumentu-faltsutzaille sonatua bera. Etxe eder bat zuen Erromako landan: oihalak, estatuak, liburutegia, eta abar. Iruzurra bera zen, hezur eta mami. Ohean sartzen zen onik zegoela ez aitortzeko. Bada, gizon hark, jokoan iruzur ez egiteaz gainera, sariak ere ematen zizkien morroiei. Kanonigo baten adiskide egin

ostean, astero-astero joaten zen harengana konfesatzera, inor asko ibiltzen ez zen kapera batera. Eta, isilpeko ekintza horietako bat bera ere onartzen ez zuen arren, bitan jasotzen zuen bedeinkazioa, belauniko jartzean eta altxatzean. Deabruak apenas sinesten zuen halako azpikeria. Baina ez zegoen dudaren izpirik; egiazkoa zen kontua.

Ez zen une batean ere geratu. Harridurak ez zion eman astirik hausnartzeko, alderatzeko eta ondorioztatzeko, egungo ikuskizunak ba ote zuen antzekotasunik iraganarekin. Berriro ere zerura joan zen hegaz, haserrearen haserrez, horren fenomeno bereziaren isilpeko kausa jakiteko larri. Jaunak atsegin infinituz entzun zion. Ez zuen eten, ez zion demanda eman, eta ez zuen garaipenik ospatu hilzori sataniko haren aurrean. Begiak Deabruaren gainean pausatu, eta esan zion:

—Zer nahi duzu zuk, deabru koitadu hori? Kotoizko soingainekoek belusezko parpailak dauzkate orain, lehen belusezkoek kotoizkoak zituzten bezalaxe. Zer nahi duzu, bada? Gizakiaren betiko kontraesana.